



LIBURUA

Rimbaud etorri duk



INDALEZIO OJANGUREN / GFA

BIHOTZ-BEGIETAN

XABIER LIZARDI

SUSA, 2021

IGOR ESTANKONA

Arrazoi du Anjel Lertxundik hitzaurrean: “Euskarak eman duen poema liburu ederrenen artean eder, Lizardiren *Bihotz-begietan* da eragin handiena izan duen obra euskal poesian: ia mende osoa pasatu da argitaratu zenetik (1932) eta ordutik honako euskal poesia ezin da ulertu Lizardi gabe”.

Susakoek berrargitaratu dute Lizardi. Zarauzko argitaletxe batek izan behar zuen, noski. Tolosan ere badago, ordea, plaza bat Lizardirena –Oria ibaira ematen duen eguzkibegi eder bat–, eta Lizardiren leiho bat ere bai, Txillidarena. Eta euskararen inguruan hausnarketa bat egiten den bakoitzean badauka Lizardiren ukitu bat gure arrangurak, Euskal Herrian nahinon: “Leen-leendanik gure izkuntza landu izan ba'gendu, gogo-jardun ta bear guzietarako erabiliz, gaur

bereziko jakintza baten, bereziko eler-ti baten bidez gizadiak begiratze ta aipatze'aal-ginduzten!”. Lizardik literaturaren esparrua gainditu zuen literaturaren bidez, urrezko orri bat utzi zuen idatzia gazte, sano gazte, hil aurretik. Espainiako gerra zibilak orbandu eta mikaztu gabeko biografia dauka, eta era berean gure euskal kontzientziaren zati da.

Jose Maria Agirre Egaña Zarautzen jaio zen 1896an, baina ia bizitza osoa Tolosan eman zuen. Bertako bankuan izan zuen lehenbiziko lanpostua, laguntzaile gisa. 1923an Perot enpresako gerente lanpostua eskaini zioten, eta sare metalikoak egiten zituen lantegi hartan jardun zuen lanean, hil zen arte. Pakita Izagirrerekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten.

Eta abar eta abar...

Eta orain Susakoek ekarri dute gaurko euskara estandarraren grafia *Bihotz-begietan*. Ariketa zaila da: ezer ukitu barik zaharberritzea halako obra irudiz aberatsa, halako fresko sakratua gure letrentzat. Josu Landa aparta da horretan eta badaki itzulpenak egin ahala berridazten, badaki kentzen eta ematen baina badaki, baita, ez interbenitzen: “Zure bazter,/ gurazko aberria,/ doa zoro/ ta (bertan ni) bultzia...”.

Edizio hau lar ukitu gabeko Lizardi da. Kausitu zituen bide berriak, neologismoak eta jada ahaztutako esapide bikainak bere horretan utzita datoz. Memoria ariketa ederra da, inondik ere. Irakurtzen hasi eta ohartzen da bat zeinen garrantzitsua izan zen gure literaturan Joan Maragall, Manuel Antonio, Frederic Mistral gisako Lizardi hau. ●